



TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO

# hitza



Asteartea  
2010-06-08

VIII. URTEA 2.021. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Izeta eta Aimar Irigoien harri-jasotzaileak 'Paskualtxo' agurtu zuten omenaldian. IBON ERRAZU



Trontzan ere aritu ziren jaietako azken egunean. SARA GOMEZ

## Jende asko hurbildu da Jaietako ekitaldi desberdinetara

**ANOETA** Bukatu dira herriko Jaiak eta Udalak «orokorrean balorazio oso ona» egin du 3

## UNE HUNKIGARRIAK 'PASKUALTXO'REN OMENALDIAN

**ZIZURKIL** Herri kirolen munduko eta oro har euskal kulturako pertsonaia ezagun asko bildu ziren herenegun Adunibarreko zelaian 7

## Sionisten jarrera gaitzetsi du Udalak

**TOLOSA** Bozeramaileen Batzarrak Palestinaren aldeko adierazpen instituzionala onartu du 2

### "ITXAROPENAREN ITSASONTZIAK"

nazioarteko ekimenari elkartasuna

Facebook-en:

Plataforma de Guipúzcoa  
con Palestina

# Tolosako Udalak sionisten jarrera gaitzetsi du

**Gizartea** » Udaleko Bozeramaileen Batzarrak Palestinaren aldeko adierazpen instituzionala onartu zuen atzo.

## ERREDAKZIOA

Maiatzaren 27an Israelgo armadak nazioarteko uretan zeuden giza laguntzarako sei ontziri eraso zien, eta ondorioz, 10 lagun hil ziren — komunikabide batzuek 19 direla hildakoak adierazi dute— eta dozenaka lagun zauritu. *Itxaropenaren ontziak* izenarekin, Free Gaza mugimenduak eta Turkiako Giza Laguntza, Giza Eskubideak eta Askatasuna taldeak antolatutako konboiak 10.000 tona botika, aulki gurgildun, liburu eta janaria zeramatzan Gazako biztanleen artean banatzeko. Ontzietan Palestinaren aldeko ekintzaileak zihoa-zen, artean, Europako Legebiltzarreko hainbat diputatu, edota Mairead Corrigan Bakearen No-

bel saridun irlandarra. Nazioartetik kritika eta gaitzespen ugari jaso dituen arren, Israelek ez du damu izpirik agertu. Orain arte eginkoei Tolosako Udalarena ere gehituko zaie, izan ere, atzo eraso horren aurkako eta Palestinaren aldeko adierazpen instituzionala onartu zuen.

## Gaitzespena eta elkartasuna

Thamer Birawi eta Jesus Artetxe Palestinaren Aldeko Gipuzkoako Plataforma eta Palestinaren aldeko Biladi elkarte ordezkariek aurkeztu zioten adierazpena Tolosako Udaleko Bozeramaileen Batzarrari. Adierazpenaren bidez, Udalak babesa, elkartasuna eta onarpena aitortzen dio *Itxaropenaren ontziak* nazioarteko elkartasun ekimenari. Tolosako Udalarrentzat itsasontzi horien kontra egindako erasoak «Giza Eskubidenean urraketa» da, eta arrazoi horrengatik gaitzetsi egiten du sionisten jarrera. «Nazio Batuen ebazpenak ez bete eta haiei aurre



Pasa den ostiralean aurkeztu zuten Palestinaren aldeko adierazpen instituzionala Tolosako udaletxean. ASIERIMAZ

egiteagatik». Era berean, atseka-bea eta elkartasuna adierazten die ontzietako biktimei eta elkartasuna familiakoei eta lagunei.

## Nazioarteko Zuzenbidea eta Giza Eskubideak betetzea

Eskaera ere egiten du, adierazpen honen bitartez, Tolosako Udalak. Hain zuzen ere, Nazioarteko Komunitateak modu eraginkorrean parte hartzea eskatzen du, Nazio-

arteko Zuzenbidea eta Giza Eskubideak betetzea exijituz. Espainiako Gobernuari ere eskaera luzatzen dio Udalak. Kanpo Arazoetako Ministerioaren bidez, gaitzespen adierazpena Israelgo erakunde eskudunei helaraztea eskatzen dio, «hartutako konpromisoak bete ditzaten eta amaiera eman diezaiozen Gazako blokeoari eta palestinaren giza eskubideen urraketari; ahaztu gabe Palesti-

nako herriak behin betiko akordioaren partaide integrala izan behar duela». Halaber, Tolosako Udalak gogoratzen du Palestinaren okupazioa «ilegala» dela, eta ondorioz, okupazio horrekin amaitu behar dela.

Bestalde, herritarrei ere deia uzatzen die, gonbidatuz palestinaren alde antolatzen dituzten elkartasun ekimenetan parte hartzea.

## LTD bidez hasi da emititzen 28 kanala

### Komunikabideak

Oraingoz Oiaungo antenatik seinalea jasotzen dutenek ikusi ahalgo dute; gainerakoek udatik aurrera.

## ERREDAKZIOA

28 kanala Tolosaldeko telebista katea LTDn sartuta dago jada, UHF 24an, hain zuzen. Momentuz Oiaungo antenatik seinalea jasotzen dutenek ikusi ahal izango dute soilik, baina, laster izango dute gainerakoek ere ikusteko aukera. «Eskualde osora iristeko lanean arigara, eta uztaile hasierarako Villabonako zentrotik ere emititzea espero dugu, eskualdeko iparraldeko herriek ere ikusi ahal izango gaituztelarik udarako».

LTDn ez ezik, analogikoan, hau da, orain arteko formatuan ere emititzen jarraitzen dute, beraz, nahi duenak modu horretan ikusten jarraitu ahalgo du. Halaber, telebista ikusteko beste modu bat ere badela gogorarazi dute, Internet bidez, alegia. «Gure webgunean bideoen atala dago eta bertan saio zein albiste ezberdinak daude guztien eskura».

### Laster lau urte

Urriaren lau urte beteko ditu 28 kanalak, eta teknologiari dagokionez hurrengo pausoa telebistarekin zerikusia duten zerbitzu ezberdinak garatzea dela azaldu dute. Besteak beste, IP bidezko telebista, telebista ezberdinetako artxiboak eta konektibitate azkarragoak lortzea dituzte helburu nagusiak.

## Iragarki laburrak

### ALOKAIRUAN

■ **Etebizitza.** Ikasleentzat etxebizitza alokatzen da Gasteizen. Interesatuak dei dezatela ondorengo telefono zenbakira: 945300130.

### GALDUTAKOAK

■ **Ikaztegieta.** Maiatzaren 23an Ikaztegieta plaza graduaturiko betaurrekoak aurkitu ziren. Galdu dituenak dei dezala udaletxera (943653329).

## Zabalik da Illargi Coupage ekimena

### Gastronomia

» Gaur ardo eta gazta dastaketak eta Iñaki Arratibel kirol medikuaren hitzaldia izango dira, Zerkausion.

## ERREDAKZIOA

Hilaren 13ra arte Illargi Coupage sormenezko fusioa gastronomia jardunaldiak izango dira Illargi Delicatessen-en ekimenez, Zerkausion. Sukaldaritzaren inguruan aisia, plazerra eta ezagutza uzartu nahi dituzte, eta horretarako egitarau zabala antolatu dute.

Gaurkoari dagokionez, 18:00etan Angel Loma Osorio eta Jose Luis Hernaez Fernandez enologiak jardungo dira eta Alsaziako ardo batzuen dastaketa azalduko dute. 19:30ean, Pierola upategiko ardoak dastatu ahalgo dira eta Mikel Lasaren gaztekin uzta-

keta moduko bat egingo dute. Lasak gazte buruz hitz egingo du. 10 euro ordaindu beharko dira parte hartzeko.

Bestalde, 20:00etan Iñaki Arratibel kirol medikuak hartuko du parte. Heziketa Fisikoa eta Kirol Medikuntza aditua da tolosarra, eta Nutrizio eta Kirol irakaslea EHUKo Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien Fakultatean. Elikadura osasuntsuaren plazerra izango du hizpide Zerkausion emango duen hitzaldian. Sarrera doakoa izango da.

### Izen-emateak

Bazkari, afari eta dastaketarako erreserba egin beharko da aurrez. Tolosaldea Tour bulegoan (943697413) erosi ahalgo dira 45 euroren truke otordu etarako txartelak. Ardo dastaketetan parte hartzeko, berriz, 943654229 zenbakira hots egin beharko da.

## Laburrak

### Aske utzi dute Mikel Garmendia euskal presoak

**VILLABONA** » Gaur irtengo da Herre- de la Manchako espetxetik Mikel Garmendia billabonatarra. Fiddantzapeko askatasuna ezarri dio epaileak eta Garmendiaren ingurukoak gaur bertan ordainduko dute 15.000 euroko bermea.

### Enpresa Digitala sari nagusia Fundikerentzat

**EKONOMIA** » Enpresa Digitala Sariak banatu berri dituzte, eta Tolosaldeko bi enpresa sarituak izan dira. Fundike SL lantegiak jaso zuen sari nagusia 12 enpresen artean. Altzairu herdoilgaitzezko piezen fundizioak egiten dituzte lantegi honetan. Duela 150 urte baino gehiago sortu zen, eta 37 langilek egiten dute lan. Txoperhead.com-ek ere jaso zuen aipamena sariketan. 12 enpresa hauek sarituak izan dira, besteak beste, euren lan egiteko prozesuan teknologia berriak erabiltzen dituztelako.

**Gidariak** behar dira dokumentazioa eta balijak banatzeko. Postu finkoak erakunde publikoetan. Lanaldi jarraia.

610-71 97 82

**Lan publikoetarako** zaintzaileak, igeltseroak, arotzak, argiketariak, eta mantenuerako langileak behar dira. Lanpostu finkoak.

600-97 74 95

**Telefonistak/harreragileak** behar dira eraikin publikoetarako. Postu finkoak. Lanaldi jarraia.

607 -25 42 40

# Kukuak agur esan die anoetarrei

**Anoeta** » Bost egunez jai giroan murgilduta ibili ostean, Anoetan datorren urtera arte agurtu dituzte Korputz jaiak.

## ENERITZ MAIZ

Pasa den asteen, Kukuaren jaietsierarekin batera, anoetar guztiak jai giroan murgilduta ibili dira.

Azken eguna igandea izan zuten eta goizean zehar, Gorritiren festibala, Kuku Pilota Elkarteak antolatuta, Paleta Txapelketako finalak eta herriko txistulariek lagunduta buruhandi eta erraldoiak izan zituzten.

Arratsalde partean herri kirol jaialdia izan zuten. Bi zati izan zuten: lehena Arozetxea ondoko zelaian izan zen eta bigarrena herriko plazan. Zelaian, Anoetako taldea, Alkizako taldearen aurka lehiatu zen eta alkizarrek irabazi zuten.

Jarraian herriko plazan sokatiran nesken txanda izan zen eta anoetarrak izan ziren garaile. Ondoren, Kupela taldearekin erromeria izan zuten. Afal ostean ere Kupela taldea izan zuten. Gauerdian, Zezen suzkoarekin eta kanpai hotsez lagundurik, kukuaren igoera egin zuten. Jaietako bukaera, Kupela taldearen erromeriarekin eman zuten.

Ajeak pasatzeko denborarik utzi gabe, Gorka Otxoa, Festetako zinegotziari lehen balorazioa egiteko eskatu diogu: «Orokorrean hartuta balorazioa oso ona da. Ekitaldi ezberdinetan jende asko ibili da eta eguraldi onari esker, guztia uste bezala atera zaigu».

Besteen artean, sagardo dastazeak, dantza emanaldiak, mozo-erro egunak, Ze Esatek eta Bizardunak taldeen kontzertuak eta herri kirol saioak harrera ezin hobea izan dutela ere argitu digu zinegotziak. Dantza emanaldiaren kasuan, berriz, «ikustera jende asko hurbildu zen eta ikusleak, dantzariak eta musikariak, guztiak gustura gelditu ziren», esan du. Mozo-erro egunean ere, «urtetik urtera jende gehiago mozorrotzen da» adierazi du.

Kontzertuak eta Anoeta eta Alkizaren arteko herri kirolek, jende asko erakarri zuten herrira.

## Korputz jaiak utzi eta San Joan

Hilaren 23 eta 24ean, San Joan eguna aitzakiazat hartuta, festa izango dute herrian. Hilaren 23an, 18:00etan, buruhandi eta erraldoien kalejira egingo dute herriko txistulariek. 20:30ean, herri afaria egingo dute plazan. Iazkoan, mahaien eta aulkien kopuruan izan zituzten arazoak ekiditeko, antolatzaileek izena ematea eskatzen diete bertan izango direnei. Izena, hilaren 14etik 18ra udal-erretxean edota kiroldegian eman behar da. Lagun koadrila bakoitzeko bat apuntatzea nahikoa izango da bere taldean zenbat izango diren azaldu. 22:15ean, txalapartariak, San Joan bezperako suaren jai iragarriko dute. Ondoren, suaren inguruan, Markos Landa aita-semeak, ahosoinuarekin direla, San Joan zortzikoa, kantua eta erromeria izango dira.

San Joan egunean, 12:00etan, jubilatuak eskainitako meza izango da. Aurretik, herriko dantzariak, agurra dantzatuko dute jubilatu



Arozetxe ondoko zelaian izan zen Anoeta eta Alkiza taldeen arteko herri kirol saioa. SARA GOMEZ

guztien omenez. Urtero bezala, Udalak, herriko jubilatuei eta pentsiodunei bazkaria eta dantzaldia eskainiko die. 14:00etan Zuloaga Txiki jatetxean izango da eta izena ematerakoan, bigarren platera aukeratu egin behar da: bakailaoa piperrekin, legatza labean edota entrekota.

Anoetan errodaturik dauden, jubilatuei edo pentsiodunak diren eta 60 urtetik gorakoak diren pertsonak joan ahal izango dira bazkaria. Izena emateko azken eguna, hilaren 18a ostirala izango da. Udal-erretxean egin behar da 09:00etatik 13:00etara.




Alkizarrek irabazi zieten anoetarrei. SARA GOMEZ



## Kirolari atek zabalik izan dira

**ALEGIA** » Eskualdeko hainbat herritan, igandean kirolari atek zabalik eguna ospatu zuten. Patinak, eskalada, pilota, futbola, bizikleta, mendia, kirol instalazioen doako erabilera... denetarako aukera izan zen. Beste-

tik, Alegia eta Asteasun, kirol astea izan zuten eta atzo bukaera eman zieten. Asteasun, Ciclo Indoor-a egin zuten eta Alegian, herriko plazan elkartu ziren eta ginkana egin zuten. PATXI RENOBALDES



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# Udala: «Jaiak ospatuko direla bermatzen dugu»

**Ibarra** » Berak bakarrik prestatuko du egitaraua herriko hainbat taldek «Jai Batzordean parte hartzeari ezezkioa» eman ostean.

## ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak udalerriko bizilagunek San Bartolome jaiak ospatzeko aukera izango dutela bermatzen duela argitu nahi izan du, izan ere «zenbait elkarteek Jai Batzordean parte hartzeari ezezkioa eman diote», argitu dute udal ordezkariak. «Udala jaietako programa definitzeko lana egiten ari da eta edizio honetan, 70.000 euroko aurrekontua izango dute jaiak», zehaztu du. «Orain arte festetako antolakuntzan parte hartu izan



Jaiak ospatuko direla bermatu du Ibarrako Udalak. HITZA

duten zenbait elkarteek aurten ez zutela Batzordean parte hartuko iragarri zuten. Zehazki, elkarlan hau alde batera utzi nahi izan duten taldeak ondorengoak dira: Haurren Danborrada, Euskara

Taldea, Haur eta Gazte Koadrilak, Hauspoa, Koadrilak Atxurra, Koadrilak Pizarra, Ibarrako Xake Elkarte, Motozaleen Taldea, Sendi Ekintza Elkarte, Soka Tira Elkarte, Txiribitu Aisialdia, Xepa El-

karte, Alurr Dantza Taldea eta Ibarrako Kirol Elkarte zalanztan dago», argitu du Udalak.

Talde hauek euren jarrera arrazoitzeko «Udalak euren proposamenekiko duen errespetu falta» aipatu dutela esan dute udal arduradunek eta zentzu honetan, Txelo Romeo Ibarrako alkatea hau azaldu nahi izan du: «tokiko gobernua beti Jai Batzordearen lana kontutan izan du eta kontutan izan ditu egin dituzten proposamen guztiak». Romeok adierazten duenaren arabera, «elkartetako inork ezin du esan mugatuak izan direnik, proposamen guztiak entzun baitira ondoren baloratuak izateko». «Horietako gehienak azken programara barneratu dira», gaineratu du alkateak.

Txelo Romeok, era berean,

«Udaletik jarri diren muga bakarrik izaera ekonomikokoak» direla zehaztu du, izan ere, «gogoan izan behar dugu korporazioak adostutako aurrekontu bat dugula eta ezin dugu handitu, Udalak eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuegan ez eragiteko».

## Bakarka

Horiek horrela, «talde hauek San Bartolome jaien antolakuntzan elkarlanean ez aritzeko hartutako erabakiaren aurrean, eta erabaki honek ibarbar guztiei modu ezkorrean ez eragiteko, Udalak bakar-ka egingo dio aurrera publiko guztientzako eta atsegina izaten saiatuko den programaren diseinuari, ibarbar guztiak baitute aisi eta dibertsiozko egun batzuetaz gozatzeko eskubidea», argitu du.

## G Gutunak

### Musungo familiaren esker onak

Otsailak 28ko goiza ilun esnatu zitzaizgun Musungo familiari, sute tamalgarri batek gure sortetxea eta senide Migelikoren bizitexea zena kiskali baitzizgun. Bertan, Migelek bere ondasun guztiak galtzeaz gain, inoiz berreskuratu ezin izango ditugun gauzak galdu genituen: aiton-amonen oroigarriak, bertako txoko bakoitzak ekartzen zizkigun oroitzenak eta sortzen zizkiguten sentimenduak...

Baina geroztik dena ez da iluna izan, une horretan bertan, bai ondorengo hilabete hauetan herritarrek nahiz kanpokoek erakutsi diguzuen hurbiltasunak, maitasunak, laguntzak... hunkiturik gaitu, nola eskertu ez dakigularik.

Hainbat lagun bildu eta batzorde bat antolatu zuten, ekimen ugari martxan jarri: herri-kirolen eta euskal kantuen jaialdia, kontu korronteak... beren borondate onenez. Hori dela eta, hitz hauen bidez, bestela ez baitugu modurik aurkitzen, eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera zuen laguntza eta elkartasuna erakutsi diguzueni.

Goizago edo beranduago, baina argi dugu Musun berriro goian ikusiko dugula, eta hori neurri batean zuei esker izango dela. Horrela, baina, jakin ezazue guk bertako txoko bakoitzean zuen elkartasuna ikusiko dugula, eta zuek bertara begiratu eta arto egon zaitezketela, zuei esker izango baita hori posible. Bihotz-bihotzez mila esker beti zorretan egongo garen Musungo famili guztiaren partez.

**Musundarrak.** Leitza.

### Balio ez zuena balio gabetu dute

Eusko Jaurilaritzak, euskararen aurkako hizkuntza politikaren baitan, beste urrats bat eman du: Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Hizkuntza Eskubideei Buruzko Dekretua aldatu du, (ia) osorik balio gabetzeraino. Balio gabetzearen ondorioz, Jaurilaritzak uko egin dio enpresa-bezero harremanetan euskararen aldeko neurriak beteazteari, eta, horren ondorioz, enpresen borondatearen mende egongo da euskararen aldeko neurriak hartzea; adibidez, bezero euskaldunari hizkuntza tratu egokia ematea.

Jaurilaritzak jakinarazi du ez diela isunik jarriko bi hizkuntza ofizial dauden lurralde batean salerosketetan zerbitzua hizkuntza batean bakarrik eskaintzen duten enpresei. Baina, 2008an dekretua onartu zenetik, zenbat isun jarri dira, bada? Zenbat diru bildu du Jaurilaritzak euskara baztertzen duten enpresei isunak jarri? Gaude diru kopuru hori urrun dagoela Kataluniako Generalitatek biltzen duenetik, eta susmoa dugu kopurua hutsaren hurrena izan dela. Baina hemen kontua ez da zenbat diru bildu den edo bil zitekeen. Hemen kontua da dekretuaren ibilbidea antzua izan dela: aurreko legealdiko Jaurilaritzak paperean hizkuntza eskubide batzuk aitortzen zizkigun EAEko euskaldunoi enpresa batzuekiko harremanetan (negozio bolumen handiko enpresek, saltoki handiekin, garraio publikoko enpresek, komunikazio eta telefonia konpainiekin...), baina hori paperean soilik geratu da. Paperean zegoenak ez du bi urtetan jauzi egin errealtatera. Hortaz, legealdi honetako Jaurilaritzak zergatik balio gabetu du dekretua, praktikan nahikoa indargabetuta bazegoen?

Eguno Jaurilaritzak ez duelako ontzat hartzen euskaldunok deialde hutsal batean ere hizkuntza eskubide batzuk aitortuta edukitzea. Euskal Herrian dugun hizkuntza gatazkan, euskaraz bizi nahi dugunon eta euskaraz bizitzen uzten ez digutenen arteko gatazkan, Jaurilaritzak argi utzi nahi izan digu non kokatzen duen bere burua: euskaraz bizi nahi dugunon aurka. Bezero euskaldunaren eta enpresa eraldunaren arteko harremanei dagokienez, bi mezu argi igorri ditu. Enpresei hauxe esan die: «Segi gaztelania ezartzen, ez duzue zigorrik izango-ta!». Euskaldunoi, aldiz, beste hau: «Enpresekiko harremanetan, ez duzue eskubiderik». Zigorgabetasuna enpresentzat eta babesik eza euskaldunontzat.

Erabakia argudioz jantzi nahian, Jaurilaritzak adierazi du zehaztapenak atzeratu egingo dituztela errealtate soziolinguistiko horretarako abagunea eman arte. Udalerri Euskaldunen Mankomunitateak, eta, hedaduraz, udalerririk osatzen duten lurgunetako errealtate soziolinguistiko propio bat du, baita borondate argi bat ere: euskara sendotzea lurgune

horren baitan. Zergatik ez baliatu egoera soziolinguistiko hori, enpresa-bezero arteko harremanetan euskararen aldeko neurri eraginkorrak hartzen hasteko? Eskatera hori ez dago ezerezean oinarrituta. Gogora ekarri nahi dugu berriro ere Jaurilaritzaren Aholku Batzordeak Euskara 21 txostenean zehaztutakoa: «(...) Arnasgune horiek -gune euskaldunak- zaindu, sortu eta, ahal balitz, hedatu ezear, alferrik izango da, seguruz enpresa, gainerako ahalegin oro. Horrenbestez, lehentasunezko trataera garbia eman beharko zaie euskararen arnasguneei XXI. mendehasierako hizkuntza politikari». Hor duzue «abagunea», abagunerik ikusi nahi baduzue behintzat. Eta, bestela, aukera hori jorraitu nahi ez baduzue ere, euskaraz bizi nahi dugunoi beste traba bat jarri nahi badiguzue ere, jakin ezazue euskaldunok ere oso argi daukagula jarraitu beharreko bidea: euskaraz bizitzen jarraitu, kalean, etxean, eskolan, unibertsitatean, administrazioan, lanean eta, jakina, salerosketan ere bai.

**Jon Bollar.** UEMAko lehendakaria, zuzendaritza batzordearen izenean.



sarrerak


HITZAK sarrera pare bat du harpidedun ordaintzaileentzat

Irurako Ikastolaren alde  
**IRRIEN LAGUNAK**  
Pirritx eta Porrotx-en ikuskizuna

Ekainaren 16an • Asteazkena • 18:00ean  
Irurako pilotalekuan

sarrerak eskuratzeko deitu goizez 943-65 56 95 telefono zenbakira





Txutxi Ariznabarretak hitz egin zuen lehenik eta behin. A. IMAZ

## Independentistak Sarea hasi da lehen urratsak ematen

**Tolosa** » Udazkena bitarte aurkezpen-egintzabildak egingo dituzte eta lehena herrian izan zen pasa den larunbatean.

### ERREDAKZIO

Tolosan hasi zuten pasa den larunbatean Independentistak Sareak ekainean zehar garatuko dituen aurkezpen-egintzabildak lehena. Bilkura hauetan sarea aurkezteaz gain, udazkena bitarte garatuko duten egintzabildak prozesuan lehen urratsa eman eta sarea osatzea da dituzten helburu nagusiak.

Izan ere, udazkenean independentisten lehen batzar nazionala izango da eta euren asmoa da «guztionean ondorioak eta aurrera begirako proposamen bat lantzea».

Horiek horrela, Txutxi Ariznabarretak sarearen aurkezpena

egin zuen lehenik eta behin. Batek Independentistak Sarea «persona desberdinek eta gune desberdinetan independentziaren aldeko hausnarketa eta ildo estrategikoa lantzeko zerbaiten beharra» ikustean hasi zela garatzen gogoratu zuen. Sarea sortzeko beharraz hitz egin eta gero Aberri Eguna ere ekarri zuen gogora, izan ere, oso jendetsua izan zen, baita esanguratsua ere, «jendeak zerbait berria sentitu baitzuen».

### Prozesu parte-hartzailea

Orain sarea osatzen joateko unea dela ere nabarmendu zuen eta horretarako prozesu parte-hartzaile abian dela esan zuen. «Udazkena bitartean guztionean asmatu behar dugu Independentistak Sarea», zehaztu zuen.

Datozen aurkezpen-egintzabildak Gernikan izango da hilaren 15ean, hurrengo Gasteizen hilaren 17an eta Bilbon hilaren 22an.



## Ina Zeberio omendu dute herrian

**LIZARTZA** » Hamabi urte bete ziren pasa den larunbatean ertzainek Ina Zeberio lizartzarra tiroz hil zutenetik Gernikan. Herritarrek, ordea, ez dute gertakaria ahaztu eta omenaldia ere egin zioten herenegun monolitoaren aurrean. Larunbatean ere gauza bera egin zuten Gernikan, hil zuteneko tokian bertan. s. GOMEZ

**Gatikoaetxea Familia**  
ZURE FAMILIA EDONOLAKOA DELA ERE

**0€**

**euskaltel**  
zuretzat

**FAMILIA PLANA**  
ZURE FAMILIAKO TELEFONOEN ARTEKO DEI GUZTIAK

MINUTURO  
**0** zentimoren truke

Finkoa ► Mugikorra / Mugikorra ► Mugikorra / Mugikorra ► Finkoa

**zuntzOptikoa**

Deitu 1717 telefono-zenbakira  
[www.euskaltel.com](http://www.euskaltel.com)

Guztizko ondorio onargarriak mugikorra bati dute. ZuntzOptikoa Euskaltel. Hantzereneko bezeroentzat ez da Familia Plana. Telefono guztiak kontu berari egin behar dute. Euskaltel deialdi. Ezarpen-kontrata: 15 euro. 30 euro. Finkoa eta Mugikorra guztiak. Baita eta erabiltzen duten. ZuntzOptikoa Euskaltel. Hantzereneko bezeroentzat bali du mugikorraren PSNak, 24 orduko bezeroen zerbitzua. Mugikorra 100 000.

E **Emaizak**

## VII. HITZA TXAPELKETA

**BENJAMINAK**  
Dorransoro-Etxeberria 16  
Murua-Murua 15

Hernandez-Tolosa 16  
Izeta-Izeta 13

Morales-Zinkunegi 16  
Onsalo-Zabala 4

## ALEBINAK

Mattin-Eloa 16  
Agirre-Ugartemendia 6

Arruti-Zubeldia 13  
Plazaola-Jauregi 16

Asti-Zinkunegi 2  
Gorostidi-Ezeiza 16

Salaberria-Marizkurrena 16  
Bikuña-Alberdi 8

## INFANTILAK

Larrea-Peña 18  
Gartziarena-Galartza 12

Chiapuso-Olarra 18  
Ibarguren-Amiano 3

Iturbe-Beloki 2  
Urdanpilleta-Urdanpilleta 18

Etxeberria-Aranguren 10  
Larunbe-Sarasa 18

**\* VII. Hitza Txapelketako hurrengo kanporaketak hilaren 11n, ostiralean jokatuko dira eskualdeko pilotalekuan.**

## AIZKORA

**URREZKO AIZKORA,**  
**AZPEITIAKO FINALAK**

**LEHEN MAILA**  
Anjel Arrospide 22:37"  
Floren Nazabal 20:16"

**23 URTEZ AZPIKOAK**  
Mugerza II.a 20:45"  
Ohian Larretxea 19:32"

**18 URTEZ AZPIKOAK**  
Eneko Saralegi 7:41"  
Eloy Kortxero 9:21"

## Nafarroako Herriartekoan Leitza finalerdietatik urrats bakarrera

**Pilota** » Ligaxkako azken aurreko jardunaldian 0-4 irabazi dio Altsasuri; azkena Arbizuren aurka jokatuko du.

## ERREDAKZIOA

Nafarroako Herriarteko Pilota Txapelketan sendo jarraitzen du Leitza. Iragan asteburuan Altsasuren aurka jokatu zuen txetetik at eta 0-4ko emaitza bikaina eskuratu zuen. Ligaxkako azken jardunaldia Amazabal pilotalekuan jokatuko dute hilaren 15ean edo 16an. 3-1 irabaztea nahikoa dute finalerdietara sailkatzeko. 2-2 egin ezker, Lizarrak zer egiten duen ikusi beharko litzateke, baina hala eta guztiz ere, Arbizuri irabazteko aukera handiak dituzte leitzarrek. Finalerdietan, joaneko partidak hilaren 20an jokatuko dira eta itzulerakoak 27an. Nafarroako Herriarteko Txapelketaren finala berriz, uztailaren 4an, Iruñeko Labrit pilotalekuan, jokatuko da.

## Altsasuri egurra

Alebinetan Alduntzinek eta Lezeak jokatu zuten lehia. 7-18ko garai-pena lortu zuten Aurrerakoek.

Infantiletan, Olano-Sagastibel-tza bikoteak 0-18 irabazi zien altsasuarrei. Sagastibel-tzak partida osoan pilota bakarria ukitu zuen. Olanoren mailaberrero ere agerian gelditu zen.

Jubeniletan Jaunarena anaiek 18-22 irabazi zuten. Jon Jaunarenak eskuetatik nahiko larri amaitu zuen norgehiagoka.

Nagusietan azkenik, Zubillaga-Iriartek 6-22ko emaitza lortu zuten. Mikel Iriarte sasoi betearen aurkitzen da eta atzelari leitzarrek erakustaldia eskaini zuen. Zubillaga ere gero eta hobeto jokatzen ari da.



Nagusien mailan, iaz, Azpiri-Madariaga nagusitu ziren. Finalak ikustera jende ugari joan zen Beotibarrera. A. IMAZ

## VII. Hitza Txapelketak Euskal Herri osoko 144 pilotari elkartuko ditu

**Pilota** » Ekainaren 2an hasi zen lehia eta maila guztietako finalak uztailaren 10ean jokatuko dira Tolosako Beotibarren.

## ASIER IMAZ

Zonaldeko hutsunea betetzeko asmoz, aurten ere Hitza Pilota Txapelketa antolatu da. Ekainaren 2an jarri zen abian eta finalak uztailaren 10ean jokatuko dira Tolosako Beotibar pilotalekuan, 09:30etik aurrera.

VII. Hitza Txapelketan Tolosaldekoez eta Leitzaldekoek gain, Euskal Herri osoko pilotariak hartuko dute parte.

Ostiraletan eskolarrek jokatuko dute. Asteazketan eta larunbatetan, aldzid, federatuek. Azken

hauek hiru mailatan sailkatu dituzte antolatzaileek: kadeteak, jubenilak eta nagusiak. Bikoteka Tolosan jokatuko dituzte euren partidak.

Gaztetxoak ere hiru mailatan sailkatu dituzte. Infantilek Bidegoianen jokatuko dituzte euren partidak; alebinek Alegian eta benjaminen Albizturren.

Infantilak pilota mixtoarekin ariko diren bitartean, alebinak eta benjaminak goxoarekin lehiatuko dira. Maila hauetan eskualdeko pilotariak bakarrik egongo dira.

Guztira, VII. Hitza Txapelketan, 144 pilotarik hartuko dute parte. Alebinen eta benjaminen partidak 16 tantora jokatuko dira. Infantilenak, kadeteenak eta jubenilenak 18ra eta nagusienak 22ra.

Epaile lanetan Andres Aramen-

di, Marko Montiel, Xuban Pikabea eta Iñaki Renobales ariko dira.

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkaritik eskerrak eman nahi dizkiegu antolatzaile, laguntzaile, epaile, pilotari, guraso eta ikusle guztiei, edizio berri bat martxan jartzeagatik. Txapelketa on bat irten dadila eta onenak irabaz dezala.

## » IAZKO TXAPELDUNAK

## VI. Hitza Txapelketa

■ **Benjaminak.** Salaberria-Zinkunegi.

■ **Alebinak.** Egiguren-Peña.

■ **Infantilak.** Mujika-Iurretagoiena.

■ **Kadeteak (4 t'erdian).** Jaka.

■ **Jubenilak.** Ezkurdia-Lukin.

■ **Seniorrak.** Azpiri-Madariaga

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
www.funerariavascongada.com Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900



## 'Arroxek' Euskal Ligan jokatuko dute

**TOLOSA** • Eskolapioetako areto futbol taldeak Gipuzkoako Liga irabazi zuen iragan asteburuan. Lasarteko Isu Leihoak taldeari 2-0 irabazi zioten arroxek. Garaipen honi esker, datorren urtean Euskal Ligan jokatuko dute Eskolapioetakok. Argazkian honako taldekideak agertzen dira: Iñaki Zurutuza, Aitor Lizartza, Iñigo Inurrita, Imanol Landa, Julen Zubizarreta, Jalal Raiss, Aitor Aranburu, Unai Altolagirre, Juancar Asenjo (Ordezkarria), Zuaitz Garmendia, Iker Salinas, Erik Mendiluze, Iñigo Iglesias, Iñigo Artola, Guillermo Zumeta, Aitor Altuna, Joseba Gorostiaga, Juanma Ordozgoiti (Entrenatzailea) eta Joseba Usabiaga (Zuzendaria). HITZA



## Tolosaldea euskal triatloien puntan

**TRIATLOIA** • Hilaren 12an, larunbatean, eskualdeko 23 kirolari irtingo dira Zarauzko Triatloian. Denboraldi hasiera bikaina daramate eskualdekoek. Itsaso Leunda hernialdetarra (Garraitz) Iron Cat gogorrean irabazle eta euskal probetan, Senperen eta Zierbenan, garaile geratu da. Egoitz Zalakain tolosarra (AtSS) Debako sprint proban irabazle eta euskal zirkuituko liderra da. Aitor Regillaga tolosarra (Mahala-TTT) Senperen sprint distantzian txapeldu gelditu zen eta Aimar Agirresarobe tolosarra (AtSS) euskal zirkuituko lehen postuetan aurkitzen da. Zarautzen markak hausten jarraitzeko aukera edukiko dute. HITZA

## Lide Garmendia ikaztegi-tarrak irabazi du Euskadiko Txapelketa

ERREDAKZIOA

Igandean Leioan Euskadiko Gimnasia Erritmikoko Txapelketa jokatu zen. Bertan, 15 urteko Lide Garmendia (Tolosa CF) ikaztegi-tarrak garaipena lortu zuen. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako 40 gimnastek hartu zuten parte Txapelketan. Bi proba egin behar zituzten, uztaiarekin eta mazarekin. Biak egin ostean, Lide Garmendia lortu zuen puntuazio onena.

Denboraldiari amaiera bikaina eman dio ikaztegi-tarrak. Arantxa Aristondo eta Jaione Tejedor entrenatzaileen laguntzarekin Gipuzkoako 3. postua lortzeaz gain, asteburuan Euskadikoan lehen postua lortu baitzuen.

# 'Paskualtxo' ren omenaldia herri kirol munduaren topagune

ERREDAKZIOA

Herri kirol munduko izen ospetsuenak Zizurkilen elkartu ziren herenegun, Jose Mari Zulaika, *Paskualtxo*, omentzeko asmoz. Une hunkigarri eta ikusgarriak bizitu ziren Adunibarreko zelaian. Aimar Irigoienek eta Izetak adibidez, harria sorbaldan berdindurik zutela, bostekoa eman zioten *Paskualtxori*. Benetan irudi ikusgarria sortuz.

Herri kirol jaialdian aizkolariak, segalariak, trontzolariak... bildu ziren. Ondoren kirolariak eta ikusleak bazkaltzera joan ziren, omenduarekin batera. Intxaur frontoian, trikitilarien eta bertsolarien berotasunagertu eduki zuten.

*Paskualtxoren* omenaldia medio, herri kirol munduak eta oro har, euskal kulturak, egun bikaina eskaini zuten herenegun Zizurkilen.



Iñaki Perurena omenaldiko une batean. SARA GOMEZ



Kirolari guztiek 'Paskualtxo' rekin atera zuten argazkia amaieran. IBON ERRAZU





**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendari:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@tolosaldeko hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Gastronomia

■ **Tolosa.** Zerkausian Illargi Coupe sormenezko fusioa gastronomian jardunaldiak hilaren 13ra arte. Gaur: 18:00etan Angel Loma Osorio eta Jose Luis Hernaez Fernandez enologiaz ariko dira; 19:30ean Pierola upategiko ardoak dastatu ahalko dira eta Mikel Lasaren gaztekin uztarketa egingo dute. Prezioa: 10 euro; 20:00etan Iñaki Arratibel kirol medikuak elikadura osasuntsuaren plazerra izango du hizpide.

### Deialdiak

■ **Alegia.** Datorren ikasturterako izen-ematea irekia dago Sutarri dantza taldean 6 urtetik gorakoen tzat Kultur Etxean.

■ **Ibarra.** Bizi Nahi jubilatutako elkartek Bermeora antolatuko du irteera ekainaren 12rako, Busturia jatetxean bazkalduz eta Zarautzen geldituz bueltan. Izen-ematea, elkartearen 30 eurotan.

■ **Tolosa.** Iturriza jubilatutako elkartek Bizkaiko kostaldera irteera antolatuko du biharko, 08:00etan abiatuz San Frantziskotik. Izen-ematea, elkartearen 30 eurotan (bazkide ez direnek 32).

■ **Tolosa.** Emakumeen ekarpenaz Tolosako historian II. Ikerketa Beka deitu du Udalak. 9.000 euroko beka eta 12 hilabetetan burutzeko. Oinarriak, <http://berdintasunatosakoudala.blogspot.com> helbidean.

■ **Tolosa.** 2011ko Tolosa Egutegirako argazki lehiaketa erretiratu buruzkoa da. Oinarriak <http://tolosagasa.blogspot.com> helbidean daude. Erakusketan jasotzen dituzten 40 argazkirik onenak bilduko dituzte eta ondoren, bisitariak bozkatzeko aukera izango dute.

■ **Villabona.** Ekainaren 12 eta 13rako avarnie-Tucarroya-Monte Perdido (3.355 m)-Lago Helado-Cilindro (3.328 m)-Casco (3.009 m)-Gavarnie mendi irteera antolatuko du Aizkardi mendi elkartek. Izen-ematea, elkartearen etzi, 20:00etatik 22:00etara ([aizkardi@aizkardi.com](mailto:aizkardi@aizkardi.com), 649 717182).

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Azpiroz, L. Amaratz auzoa, 9. 943 67 5118.

■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.

■ **Irurtzun.** Mutilloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esaneri eta iritzien erantzukizunik.

# zure aurrezkiak eta zure jendearen osasuna zaintzen ditugu.

## bikoitza da zure onura

Salmerantz, iri Onkologikoa, ardo bano hobeto zainduz, dazuela jakitearen asarritu. Aterreztat, errentagarritasun enkarjaria inbertsioetan eta bere onurazko nahi duen aliantzara.

Berriro, tratu hurbilekoa, profesioala eta asiegina.

Iri, Gipuzkoarentzat, giza-tearrekiko korprometioa lagunen erakunde bat, osasun-erretan eta giza-te-ongizatean, kerketan eta trebakuntzan, kirol, kultura, aisialdi, ingurumen eta beste hainbat alorrean dihardu. gutxi onurarako den giza-te-kudeaketa erretan.

**kutxa**  
Zuzendarik Zuzena